

Hamalau euskal preso politikoei oinarritzko eskubideak urratzen ari zaizkietela salatu dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 01/07/2024

Sektore iraultzailean kokatzen diren presoek bisitak debekatzen ari die Eusko Jaurlaritzak, arrazoi ideologikoak direla eta.

Larunbatean, hainbat euskal preso politikoen senideek eta lagunek agerraldi bat egin zuten Gasteizen. Hauek, 14 euskal preso politikoei ezartzen ari zaizkien salbuespenezko neurriak salatu zituzten, izan ere, **presoek gutun baten bidez azaldu zutenez**, oinarritzko eskubideak urratzen ari zaizkie.

Agerraldian Eusko Jaurlaritzak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kartzelen eskumena lortu zuenetik hamarnaka bisita-eskaera kartzeletako zuzendaritzek atzera bota dituztela salatu zuten, eta bisitak ukatzeko arrazoia "eskatzailearen eta presoaren ideologia edo militantzia politikoa" direla argitu zuten ere. Era berean, "ezker abertzalearen ildo ofiizialarekin" bat ez datozen presoek neurri hauek aplikatzen ari zaizkiela gehitu zuten, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Bulego Nagusitik argudiatu zutenez, preso hauek "konfrontazio estrategiaren" aldekoak dira. Hala ere, hau ez da izan preso politiko hauen kontrako neurri bakarra, hain zuzen ere, kartzela barruko jardueretan parte hartzeko mugak ere jartzen ari zaizkiela salatu dute senideek.

Egoera honen aurrean, hainbat presok Ikuskaritza Penitentziarioko Epaitegian salaketak eta kexak jarri dituzte, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak ere neurri hauek babestu ditu, bisitak ukatzea justifikatuta dagoela esanez "damutzeen aurkakoak" eta "borrokaren aldekoak" diren postulatu ideologikoak babesten dituzten presoek eta bisitariek bisitak ukatzea justifikatuta dagoela esanez.

Senideek eta lagunek adierazi dutenez, Eusko Jaurlaritza aplikatzen ari den salbuespen eta bazterketa neurriak presoek "antolatze baldintzak ezabatzean" datza "borrokarako hautua egiten dutenekin komunikazioak moztuz, egungo egoera politiko eta sozialaren berri zuzenik jaso ez dezaten". Bestetik, "haien izaera politikoa ukatuz, sumisioko bide bat jarrai dezaten" dute helburu.

Bukatzeko, "Euskal Herriko kartzeletan presoek kontrako xantaia politikoak indarrean jarraitzen du" gaitzetsi zuten prentsaurrekoan. Eta, hala, Eusko Jaurlaritzari exijitu zioten "salbuespen eta bazterketa neurriak" alde batera uzteko; gainontzeko alderdiei, berri, "isiltasun konplizea" amaitu eta "tratu baztertzailer" horien aurka irmo erantzuteko eskatu zieten.

<https://eh.lahaine.org/hamalau-euskal-presopolitikoei-oinarritzko>